



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRATIO OROKORRAK (KULTURA
ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN BIDEZ)
ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
UDALEK SINATU BEHARREKO LANKIDETZA-
HITZARMENAREN EREDUA, MUGIMENT
KIROL TXARTELA (MUGIMENT KTX) EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARTZEKO.
2023-2026 ALDIA**

**MODELO DE CONVENIO DE COLABORACIÓN
A SUSCRIBIR ENTRE LA ADMINISTRACIÓN
GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE
EUSKADI, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO
DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, Y
LOS AYUNTAMIENTOS DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA LA
IMPLANTACIÓN DE LA TARJETA MUGIMENT
KIROL TXARTELA (MUGIMENT KTX) EN EL
TERRITORIO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO. PERÍODO 2023-2026**

Gasteiz, sinadura elektronikoan ageri den egunean.

En Vitoria-Gasteiz, en la fecha de la firma electrónica,

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

REUNIDOS

Alde batetik, Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren titularra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa diharduena.

De una parte, D. Bingen Zupiria Gorostidi, titular del Departamento de Cultura y Política Lingüística, que actúa en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Eta, bestetik, LEIRE ARTOLA UGALDE jauna/andrea, Alkate edo baimendutako pertsona den aldetik, BEASAIN ko Udalaren ordezkari gisa diharduena.

Y, de otra, D./Dña. LEIRE ARTOLA UGALDE en su condición de Alcalde/Alcaldesa o persona autorizada que actúa en nombre y representación del Ayuntamiento de BEASAIN.

Bi alderdiek gaitasun eta legitimazio nahikoa aitortzen diote elkarri lankidetzak-hitzarmen hau sinatzeko eta bertan ezartzen diren baldintzetan behartuta geratzeko, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad y legitimación bastante para suscribir el presente Convenio de colaboración y para quedar obligadas en los términos que en él se establecen, y a tal fin,

AZALTZEN DUTE:

EXPONEN

I.– Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Administrazio Orokorrak eta hitzarmena sinatzen duten toki-erakundeek euren betebeharren artean daukate herritarrentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta baliabide publikoak esleitzeko efizientzia bilatzea, parte-hartzearen, objektibotasunaren, gardentasunaren eta elkarlanaren printzipioen arabera, gainerako administrazio publikoetan xede komunak lortzeko

I.– Que tanto la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante, CAE), como las Entidades Locales firmantes, tienen entre sus obligaciones el ofrecimiento de unos servicios de calidad para la ciudadanía, la búsqueda de la eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, de conformidad con los principios de participación, objetividad, transparencia y colaboración en la



jardutean. Hain zuzen ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan ezartzen da, besteak beste, administrazio publikoen arteko lankidetzak, lankidetzak eta koordinazio-printzipioen errespetua. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikuluan jasotzen da lankidetzak hitzarmena dela kudeaketa publikorako tresnarik eraginkorrena.

Ondorioz, helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da administrazio publikoen arteko lankidetzak areagotzeko beharrezkoak diren bideak antolatzea.

II. – Bi aldeek hitzarmen honen xede den gaien eskumenak dituzte, eta lankidetzak hitzarmen hau formalizatu dute, kirol-azpiegitura publikoen erabileraren arrazionalizazioa hobetzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu zabalagoa eta hobea eskaintzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.36. artikuluan ezarritakoarekin bat, EAEk eskumen eskusiboa dauka kirol-arloan.

Horrela, botere publiko guztiek bermatu behar dute behar bezala gauzatzen dela kirola egiteko eskubidea. Horretarako, herri-administrazioen arteko lankidetzak arduratsua izan beharko du, kirolaren arloan, eta kirol-instalazioen ahalik eta sarerik onena planifikatu eta sustatu beharko da; hori xedatzen dute, hain zuzen ere, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 2.3.m) eta 2.3.p) artikuluek, hurrenez hurren.

EAEren barruko eskumen-banaketari dagokionez, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 4.1 artikulua honako hau ezartzen du: «Autonomia Erkidegoko erakunde komunek kirol arloan Euskal Autonomia Erkidegoari Autonomi Estatutuaren indarrez dagozkion eskumen guztiak erabiliko dituzte, salbu eta lege honetan edo gainontzeko antolamendu juridikoan lurralde

actuación con el resto de Administraciones Públicas para el logro de fines comunes. En efecto, el respeto a los principios de cooperación, colaboración y coordinación entre las Administraciones Públicas se establece, entre otros, en el artículo 3.1 k) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Asimismo, en el artículo 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se contempla que el convenio de colaboración es la herramienta de gestión pública más eficiente.

En consecuencia, para conseguir los referidos objetivos es indispensable articular los cauces que sean precisos para intensificar la colaboración interadministrativa entre las diferentes Administraciones Públicas.

II.– Que las partes comparecientes ostentan competencias en la materia objeto de este convenio y formalizan el presente convenio de colaboración con el objetivo de mejorar la racionalización del uso de infraestructuras deportivas públicas para ofrecer un más amplio y mejor servicio a la ciudadanía.

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la CAE tiene competencia exclusiva en materia de deporte.

Así, todos los poderes públicos han de garantizar el adecuado ejercicio del derecho a la práctica del deporte mediante la colaboración responsable en materia deportiva entre las distintas Administraciones Públicas, y la planificación y promoción de una óptima red de instalaciones deportivas, tal y como se recoge en los artículos 2.3 m) y 2.3 p), respectivamente, de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

Por lo que respecta al reparto competencial en el seno de la propia CAE, el artículo 4.1 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, establece que «Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma ejercen en materia deportiva todas las competencias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma en virtud del Estatuto de Autonomía, no se atribuyen



historikoetako foru-organoei, udalei edo gainontzeko toki-erakundeei ematen zaizkienak.».

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19 artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-erakundeei dagokie, berezko eskumen gisa, «Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea». Ildo beretik, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 6.b) artikuluan xedatu duenez, udalei dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan, udalaren kirol-ekipamenduak kudeatzea eta mantentzea.

Bestalde, eta hitzarmen honen xedeari dagokionez, erakunde erkideen eskumena izango da, jarduera fisikoa sustatzeko eskumena baliatuz, udaleko kirol-ekipamenduen kudeaketa eta mantentzea gainditzeko duen oro.

III. – «Mugiment Kirol Txartela» (aurrerantzean, Mugiment KTX) txartel birtuala da, eta udalerri bateko udal-kirol zerbitzuko abonatuak aukera ematen die atxikitako kirol-instalazioetara EAE osoan sartzeko. Ekimenaren bidez, kirol-instalazioen eta -praktiken eskaintza handiagoa eman nahi zaie herritarrei, bai eta baliabide publikoen kudeaketa hobetu ere, lehendik dauden kirol-azpiegituren erabilera optimizatuz.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute toki-erakundeetako araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako esparruan, honako hauek kontuan izanda,

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Xedea eta helburua.

1. – Hitzarmen honen xedea da udal sinatzailearen eta EAEko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzarako termino eta baldintza orokorrak ezartzea, Mugiment KTX txartela ezartzeko,



a los órganos forales de los territorios históricos o a los municipios».

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1.19 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, corresponde a las Entidades Locales, como competencia propia, «la ordenación y promoción del deporte y de actividades deportivas y gestión de equipamientos deportivos de uso público». En análogos términos, el artículo 6 b) de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, preceptúa que corresponde a los municipios, en su respectivo ámbito territorial, la gestión y el mantenimiento de los equipamientos deportivos municipales.

Por su parte, y por lo que al objeto del presente convenio respecta, será competencia de las Instituciones Comunes todo aquello que, en el ejercicio de la competencia en materia de promoción de la actividad física, exceda la referida gestión y mantenimiento de los equipamientos deportivos municipales.

III. – La «Mugiment Kirol Txartela» (en adelante, Mugiment KTX) es una tarjeta virtual que permite a las personas abonadas al servicio municipal de deportes de una localidad el acceso en toda la CAE a las instalaciones deportivas adscritas. con esta iniciativa se pretende dotar a la ciudadanía de una mayor oferta de instalaciones y prácticas deportivas, así como mejorar la gestión de los recursos públicos, optimizando el uso de las infraestructuras deportivas ya existentes.

Por todo ello, las partes firmantes acuerdan suscribir el presente Convenio de colaboración, en el marco establecido en la legislación básica de régimen local y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, con arreglo a las siguientes,

CLÁUSULAS

Primera.— Objeto y finalidad.

1. – El presente convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales para la colaboración entre el Ayuntamiento firmante y la Administración General de la CAE



Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten herrietako udal-instalazioak herritarren eskura jarri ahal izateko, eta, horrela, euskal herritarren kirol-jarduera sustatzeko.

2.– Hitzarmenak helburutzat du jarduera fisikoa sustatzea, sedentarismoa murriztea eta euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako, dauden udal-instalazioen erabilera optimizatu nahi da, ahalik eta pertsona gehienek erabil ditzaten, eta pertsona horiek, aldi berean, erraztasunak izango dituzte kirola egiteko.

Bigarrena. – Mugiment KTX txartel birtuala

Mugiment KTX txartel birtuala da, eta, APP baten bidez, aukera ematen die Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalerrietako instalazioetan abonatuak pertsona bakoitzari parte hartzen duten gainerako udalerrietako instalazioak erabiltzeko. Funtzionamendua eranskinean dago jasota.

Hirugarrena. – Erakunde bakoitzaren konpromisoak.

1. – Aldeek konpromisoa hartzen dute txartelaren funtzionamendua garatzen duen hitzarmen honen eranskina betetzeko.

2. – EAEko Administrazio Orokorrek, Mugiment KTX ekimena garatzeko, urtean 80.000 euro emango ditu gehienez, eta Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalen artean banatuko dira, hitzarmen honen bosgarren klausulan, konpentsazio-poltsari buruzkoan, aurreikusitako moduan.

Ekarpen hori, ordean, kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan kontsignatzearen mende.

3. – Udal sinatzaileak konpromisoa hartzen du Mugiment KTX txartelaren erabiltzaileen eskura



para la implantación de la tarjeta Mugiment KTX, con el fin último de posibilitar la puesta a disposición de la ciudadanía las instalaciones municipales correspondientes a las localidades que participen en la iniciativa Mugiment KTX, fomentando así la práctica deportiva de la ciudadanía vasca.

2.– La finalidad del convenio es el fomento de la actividad física, la reducción del sedentarismo y la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía vasca. Para ello, se persigue la optimización del uso de las instalaciones municipales existentes, haciéndolas accesibles a un mayor número de personas, quienes, a su vez, encontrarán facilidades para llevar a cabo la práctica deportiva.

Segunda.– Tarjeta virtual Mugiment KTX

Mugiment KTX es una tarjeta virtual que, mediante una APP, permite a las personas abonadas a las instalaciones pertenecientes a municipios que participen en la iniciativa Mugiment KTX utilizar las instalaciones del resto de municipios participantes. Su funcionamiento se detalla en el Anexo.

Tercera.– Compromisos de cada entidad.

1.– Las partes se comprometen a cumplir con el Anexo de este convenio, donde se desarrolla el funcionamiento de la tarjeta.

2.– La Administración General de la CAE aportará, para el desarrollo de la iniciativa Mugiment KTX, un máximo de 80.000 euros anuales, que serán repartidos entre los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX en la forma y modo previstos en la cláusula quinta del presente convenio, relativo a la bolsa de compensación.

Dicha aportación queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente, y a su consignación en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El Ayuntamiento firmante se compromete a poner a disposición de las personas usuarias de la



jartzeko erabakitzen dituen instalazio, zerbitzu eta jarduerak.

Era berean, txartela ezagutzera emateko, eskuragarri dituzten komunikabide guztiak (udalaren webgunea nahiz aplikazioak, iragarkiak udaletako kirol-instalazioetan, prentsaurrekoak, etab.) erabiltzera konprometitu da.

Udalak edozein unetan eman ahal izango du baja Mugiment KTX ekimenean, Batzorde Teknikoari jakinarazita. Batzorde Teknikoak erabakiko ditu bajaren izapidetzearekin zerikusia duten alderdi guztiak, Mugiment KTX ekimenean parte hartzeari uzten dion erakundearentzako konpentsazio-poltsaren banaketa proportzionala barne.

Laugarrena. – Mugiment KTX ekimenaren Batzorde Teknikoa

1. – Batzorde tekniko bat eratuko da, klausula honen hirugarren puntuan zehaztutako funtzioez gain, Mugiment KTX ekimenaren harira sinatzen diren hitzarmenen jarraipena egiteko.

2. – Batzorde Teknikoa osatuko dute, alde batetik, EAEko Administrazio Orokorreko teknikari batek eta, bestetik, Mugiment KTX ekimenaren harira sinatzen diren hitzarmenak sinatzen dituzten udal bakoitzeko teknikari banak.

Bilerak baliodunak izango dira, baldin eta gutxienez kideen % 50 bertaraten bada.

Erabakiak bertako kideen gehiengoz hartuko dira.

Lehendakaria eta idazkaria Batzordeko kideen artean hautatuko dira, kideen gehiengoak hala erabakita.

3.– Batzorde Teknikoak ondoko funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

a) Mugiment KTX ekimenean parte hartu duten udalen artean konpentsazio-poltsa banatzeko modua erabakitzeko irizpide teknikoak ezarriko ditu.



tarjeta Mugiment KTX las instalaciones, servicios y actividades que decida.

Del mismo modo, se compromete a emplear todos los medios de comunicación a su alcance (web-app municipales, soportes publicitarios en las instalaciones deportivas municipales, ruedas de prensa...) para dar a conocerla.

El Ayuntamiento podrán darse de baja en la iniciativa Mugiment KTX en cualquier momento, notificándolo a la Comisión Técnica, la cual decidirá todos los aspectos relacionados con la tramitación de la misma, incluido el reparto proporcional de la bolsa de compensación para la entidad que deje de estar participar en la iniciativa Mugiment KTX.

Cuarta.– Comisión Técnica de la iniciativa Mugiment KTX

1.– Se constituirá una Comisión Técnica que, además de las especificadas en el punto tercero de la presente cláusula, tendrá como función realizar el seguimiento de los convenios que se suscriban con motivo de la iniciativa Mugiment KTX.

2.– La Comisión Técnica estará compuesta, de un lado, por una persona técnica de la Administración General de la CAE y, de otro lado, por una persona técnica de cada uno de los Ayuntamientos firmantes de los convenios que se suscriban con motivo de la iniciativa Mugiment KTX.

Las reuniones serán válidas siempre y cuando acudan, al menos, el 50% de sus miembros.

Los acuerdos se adoptarán mediante acuerdo de la mayoría de sus miembros.

Tanto la Presidencia como la Secretaría se elegirán entre los miembros de la Comisión, mediante acuerdo por mayoría de sus miembros.

3.– La Comisión Técnica tendrá, entre otras, las siguientes funciones:

a) Establecerá los criterios técnicos para decidir la forma de reparto de la bolsa de compensación entre los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX.

b) Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten eta hitzarmenean aurreikusi ez diren gai guztiak interpretatu eta ebatziko ditu, alderdiak ados jarrita.

b) Interpretará el convenio y resolverá, por común acuerdo de las partes, todas aquellas cuestiones que, relacionadas con el objeto del presente convenio, no estén previstas en el mismo.

Bosgarrena. – Konpentsazio-poltsa.

Quinta. – Bolsa de compensación.

1. – EAEko Administrazio Orokorrak egiten duen urteko ekarpena, hala badagokio, konpentsazio-poltsa elikatzeke erabiliko da.

1.– La aportación anual que, en su caso, realice la Administración General de la CAE estará destinada a nutrir la bolsa de compensación.

2.– Batzorde Teknikoak konpentsazio-poltsa banatzeko irizpideak ezarriko ditu. Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udal guztien artean egingo da banaketa, instalazioen urteko erabileratik lortutako datuetan oinarrituta.

2.– La Comisión Técnica establecerá los criterios por los que se realizará el reparto de la bolsa de compensación. El reparto se realizará entre todos los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX, con base en los datos obtenidos del uso anual de instalaciones.

Instalazioen urteko erabileraren azterketaren ondorioz, Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalek saldo positiboa (erroladatutakoek beste udal parte-hartzaile batzuetako instalazio gehiago erabili dituzte) edo negatiboa (erroladatutakoek gutxiago erabili dituzte parte hartzen duten beste udal batzuetako instalazioak) eman ahal izango dute. Sortutako saldo negatiboak konpentsatzeko erabiliko da konpentsazio-poltsa.

Como consecuencia del análisis del uso anual de las instalaciones, los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX podrán arrojar un saldo positivo (las personas empadronadas han hecho un mayor uso de instalaciones de otros Ayuntamientos participantes) o un saldo negativo (las personas empadronadas han hecho un menor uso de las instalaciones de otros Ayuntamientos participantes). La bolsa de compensación se empleará para compensar los saldos negativos resultantes.

3. – Batzorde Teknikoak txosten bat egingo du, eta bertan jasoko ditu Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duen udal bakoitzari dagozkion zenbatekoak ordaindu ahal izateko behar diren datu guztiak.

3.– La Comisión Técnica elaborará un informe en el que recogerá todos los datos necesarios para poder proceder al pago de las cantidades que a cada Ayuntamiento participante en la iniciativa Mugiment KTX pudieran corresponderle.

Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udal guztiei bidaliko zaie txostena.

El informe será remitido a todos los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX.

4. – Udal bakoitzari dagokion zenbatekoaren ordainketa, hala badagokio, instalazioen urteko erabilera-aldiaren ondorengo urtean egingo da; beraz, 2023-2026 aldian egiten diren ordainketak dagozkio 2022-2025 aldiko instalazioen urteko erabilerari.

4.– El pago de la cantidad que, en su caso, corresponda a cada Ayuntamiento se realizará en el año posterior al período de uso anual de las instalaciones, de forma que los pagos que se realicen el período 2023-2026 lo serán con referencia al uso anual de las instalaciones durante los años 2022-2025.



Ordainketa egiteko, Batzorde Teknikoak aldeztu aurretik klausula honen hirugarren apartatua aipatutako txostena egin eta igorri beharko du.

5. – Urte naturala amaitu baino lehen, udal batek Mugiment KTX ekimenean parte hartzeari utzi ahal izango dio. Kasu horretan, ez zaio egingo instalazioen urteko erabilaren ebaluazioa, urte horri dagokionez egin beharko zukeena, eta, ondorioz, ez du parte hartuko klausula honetan araututako konpentsazio-poltsaren banaketan.

Seigarrena. – Izaera eta araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko da.

Zazpigarrena. – Hitzarmenaren indarraldia eta amaiera, eta suntsiarazpena

1.– Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, izenpetzen den egunetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, dagokion urteko zenbatekoa emateko, lehenengoa 2023ko aurrekontu-ekitaldiari dagokiona izanik, aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

2.– Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, lau urteko aldi baterako, gehienez, edo hura azkentzea.

3. – Hitzarmenaren indarraldiari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

a) Erakunde sinatzaileen arteko adostasuna, idatziz gauzatu beharko dena, edo alderdietako edozeinek idatziz uko egitea, gutxienez hilabete bat (1) lehenago.



Para proceder al pago, la Comisión Técnica deberá elaborar y remitir previamente el informe referido en el apartado tercero de la presente cláusula.

5.– Con carácter previo a la finalización del año natural, un Ayuntamiento podrá dejar de participar en la iniciativa Mugiment KTX. En ese caso, no se le realizará la evaluación del uso anual de sus instalaciones que, con respecto a ese año, hubiera correspondido realizar y, en consecuencia, no participará en el reparto de la bolsa de compensación regulado en la presente cláusula.

Sexta. – Naturaleza y régimen jurídico

Este Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y el capítulo XIII del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

Séptima. – Vigencia y extinción, y resolución del Convenio

1.– La duración del presente convenio será de cuatro años, contados a partir de la fecha de su firma.

En todo caso, el otorgamiento de la cuantía anual que corresponda, siendo la primera la correspondiente al ejercicio presupuestario de 2023, estará condicionado a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente.

2.– En cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o bien su extinción.

3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en relación con la vigencia del convenio, son causas de resolución del mismo:

a) El acuerdo mutuo de las entidades firmantes, que deberá instrumentarse por escrito, o la renuncia de cualquiera de las partes, formulada por escrito, con al menos un (1) mes de antelación.



b) Hitzarmenaren xede diren jarduerak garatzeko gerora sortutako ezintasuna, legezkoa edo materiala.

c) Alderdi sinatzaileetako edozeinek hitzarmen honetako klausulak ez betetzea, gutxienez hilabete bat (1) lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazita.

d) Aplikatu beharreko legerian jasotako beste edozein.

Zortzigarrena.– Hitzarmena aldatzea.

1.– Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea, bidezkoztat jotzen diren aldaketak egiteko.

Hitzarmenaren edukia aldatzeko, Mugiment KTX ekimenean eragina izan dezakeen heinean, ekimen horretan parte hartzen duten udal guztien ahobatezko adostasuna beharko da.

2. – Klausulak berrikusten badira, aldaketak eranskin bidez txertatu beharko dira, eta Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalek sinatu beharko dute.

Bederatzigarrena.– Gatazkak ebaztea

1.– Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.

Gainera, gorabeheren jatorria Mugiment KTX ekimenean eragina izan dezaketen alderdiak badira, laugarren klausulan aurreikusitako Batzorde Teknikoa erabili beharko da horiek ebazteko.

2.– Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta laugarren klausulan aipatutako batzorde teknikoak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan helegitea jarri ahal izango da, jurisdikzio hori araupezen



b) La imposibilidad sobrevenida, legal o material, de desarrollar las actividades que constituyen el objeto del convenio.

c) El incumplimiento de las cláusulas de este convenio por cualquiera de las partes firmantes, previa comunicación escrita a la otra parte, con una antelación mínima de un (1) mes.

d) Cualesquiera otras recogidas en la legislación que resulte de aplicación.

Octava.– Modificación del convenio.

1.– Cualquiera de las partes podrá proponer la revisión de este convenio, en cualquier momento para introducir las modificaciones que se estimer pertinentes.

La modificación del contenido, en la medida en que pueda tener un impacto en la iniciativa Mugiment KTX, requerirá del acuerdo unánime de todos los Ayuntamientos participantes en la referida iniciativa.

2.– De producirse la revisión de su clausulado, los cambios correspondientes habrán de incorporarse al mismo mediante Adenda, que deberá ser suscrita por los Ayuntamientos participantes en la iniciativa Mugiment KTX.

Novena.– Resolución de conflictos.

1.– Mediante la firma del presente convenio, las partes se comprometen a resolver de mutuo acuerdo las incidencias que puedan surgir en su cumplimiento.

Además, en la medida en que las incidencias tengan su origen en aspectos que puedan incidir en la iniciativa Mugiment KTX, deberá emplearse para su resolución la Comisión Técnica prevista en la cláusula cuarta.

2.– Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del presente Convenio, y no puedan ser resueltas por la Comisión Técnica prevista en la cláusula cuarta serán recurribles ante la Jurisdicción Contencioso-



duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

Hamargarrena. – Datu-babesa

Hitzarmen honen ondorioz egiten diren datu pertsonalen tratamenduek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa errespetatu beharko dituzte.

Eta azaldutako guztiarekin ados egonik, hitzarmen hau onartzen dutela frogatze aldera, aldeek hitzarmenaren bina ale sinatzen dute, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua.

El/la Consejero/a de Cultura y Política Lingüística,



Administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de dicha Jurisdicción.

Décima. – Protección de datos.

Los tratamientos de datos personales que se realicen como consecuencia de este convenio deberán respetar el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Y en prueba de su conformidad y aceptación con cuanto queda expresado, las partes firman el presente documento, por duplicado en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

BEASAIN.....ko
alkatea edo baimendutako pertsona.

El/la Alcalde/sa del Ayuntamiento de
BEASAIN....., o
persona autorizada de dicho Ayuntamiento.

ERANSKINA – Txartelaren funtzionamendua

Mugiment KTX txartela txartel birtuala da. Ahalik eta hoberen erabiltzeko, gomendatzen da gailu mugikor bat izatea, Interneteko konexioarekin. Gailu mugikorrik ez badauka, erabiltzailea abonamendu-txartela eta NANA aurkeztuta sartu ahalko da instalazioetan.

Jarraian azalduko da zer urrats jarraitu behar dituzten gailu mugikorra eta Interneteko konexioa dutenek txartel birtuala erabiltzean:

- 1.– Mugiment KTX aplikazioa instalatzea.
- 2.– Datu pertsonalak, helbide elektronikoa eta NANA sartuta erregistratzea, eta zer erakundetako bazkide edo abonatu diren adieraztea.
- 3.– Erregistroa egin eta dagokien erakundeko kide direla balioztatu ondoren, jakinarazpen bat jasoko dute.
- 4.– Txartel digitala eta NANA erakustea kirol-instalazioan sartzekoan.
- 5.– Instalazioko langileak sarbidea erregistratuko du, erabiltzailearen gailuan instalazioaren egiaztapen-kodea sartuta.

Pertsona aplikazioan erabiltzaile gisa erregistratzen denean, zer udal kirol-zerbitzutan dagoen abonatuta adierazi beharko du. Horrela, Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten erakunde guztiei posta elektronikoz jakinarazi ahalko zaizkie erregistro berriak. Zerbitzu bakoitzaren arduradunek aginte-koadrora jo beharko dute, erregistro bakoitza eskuz baliozkotzeko eta erabiltzaileei parte hartzen duten gainerako zerbitzuetan txartel birtuala erabiltzeko aukera emateko.

Erabiltzaileak txartel birtuala erakusten duenean beste instalazio batzuetan sartzeko, bertako arduradunak sarrera baliozkotu beharko du,

ANEXO – Funcionamiento de la tarjeta

La Mugiment KTX es una tarjeta virtual. Para su óptimo uso será recomendable disponer de un dispositivo móvil con conexión a internet. En caso de no disponer de uno, la persona usuaria podrá acceder a las instalaciones presentando la tarjeta de abonada y el DNI.

Los pasos para las personas usuarias con dispositivo móvil y conexión a internet a la hora de utilizar esta tarjeta virtual son los siguientes:

- 1.– Instalar la aplicación Mugiment KTX en el dispositivo móvil.
- 2.– Registrarse proporcionando datos personales, dirección de e-mail y DNI, indicando la entidad de la que es socio/a o abonado/a.
- 3.– Tras el registro se recibirá una notificación, una vez se valide su pertenencia a la entidad correspondiente.
- 4.– Mostrar la tarjeta digital junto con el DNI en el acceso a la instalación deportiva.
- 5.– El empleado o empleada de la instalación registrará el acceso insertando el código de verificación de la instalación en el dispositivo del usuario o usuaria.

Cuando la persona se registre como usuaria en la aplicación deberá indicar en qué Servicio Municipal de Deportes consta como abonada. De esta forma se podrá notificar por correo electrónico a todas las entidades participantes en la iniciativa Mugiment KTX los nuevos registros que se vayan produciendo. Las personas responsables de cada servicio deberán de acceder al cuadro de mando para validar a mano cada registro y permitir que las personas usuarias puedan utilizar la tarjeta virtual en el resto de servicios participantes.

En el momento en el que la persona usuaria presente la tarjeta virtual para acceder a otras instalaciones, la persona encargada de las mismas deberá validar el acceso introduciendo un



sartzen den pertsonaren gailuan kode bat sartuta. Hala, sistemak informazio guztia artxibatuko du: Mugiment KTX txartelaren erabiltzailearen datuak, zer zerbitzutara dagoen abonatua, zer instalaziotan sartu den eta zer zerbitzu erabiltzeko edo zer jarduera gauzatzeko.

Hitzarmena sinatzen duten erakunde guztiek aginte-koadro bat izango dute. Webgune baten bidez sartuko dira, eta, bertan, erakunde horietako arduradunek, instalazioak kudeatzeaz gain, txartelaren erabilera-txostenak eta datu estatistikoak lortu ahalko dituzte.

Gailu mugikorrik eta/edo Internetarako sarbiderik ez duten pertsonak NANarekin eta beren eraikineko abonatu-txartelarekin identifikatu beharko dute udal-instalazioetan. Horrela, udal-instalazio bakoitzaren administratzaileak intranetara sartuko dira eta alta emango diote instalazioetara sartzen den erabiltzaileari.



código en el dispositivo de quien accede. De esa forma el sistema archivará toda la información: datos de la persona usuaria de Mugiment KTX, en qué servicio está registrada como abonada, a qué instalación ha accedido y para qué servicio o actividad.

Todas las entidades firmantes contarán con un cuadro de mando accesible a través de una página web, que permitirá a las personas responsables de dichas entidades gestionar las instalaciones, así como obtener datos estadísticos e informes de uso de la tarjeta.

En cuanto a las personas que no dispongan de dispositivo móvil y/o acceso a Internet, deberán identificarse con DNI y la tarjeta de abonado de su edificio en las instalaciones municipales. Con ello, los administradores de cada instalación municipal accederán a la intranet y darán de alta al usuario que accede a las instalaciones.

